

Bularretik Mintzora Kanpaina EAEko 10 herritako 4.000 haur, 250 irakasle eta 30 ikastetxetara iristen da dagoeneko

Laister izango dira 4 urte, 2007. urteko abenduan, Tolosako Haur Liburutegian Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarateak orduan inork ezagutzen ez zuen Bularretik Mintzora kanpainari hasiera eman zionetik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Liburutegi Zerbitzua izan genuen laguntzaile. Eta munduan zehar ezagutzen genituen honelako beste kanpainak abiapuntu. EAEko haurren irakurtzeko zaletasuna zen gure kezka. Hauen irakurketa ohitura sustatzea txiki txikitandik beren etxean, liburutegian eta eskolan.

2011ko uztailean, Tolosa, Oñati, Legazpi, Donostia (Erdi gunean eta Alde Zaharrean), Ermua, Iurreta, Markina, Amurrio, Aramaio eta Urkabustaitzeraino iritsi da kanpaina. 2011-2012. ikasturtean 12 herri izango dira jada BM kanpaina martxan izango dutenak. Izan ere, Arrasate eta Laudion ere egitasmoa abian jartzeko hitzarmenak sinatu dira udal bakoitzarekin.

Guztira, egun, EAEko 0-6 urte bitarteko 3.956 haurrengana iristen da Bularretik Mintzora kanpaina. 29 ikastetxeetako 250 irakasle dabilta egitasmo honen baitan formazioa eskuratzen eta aipatu 10 herrietako haur liburutegietan zehar, Galtzagorri adin tarte horietarako gomendatutako 1.000 liburutik gora biltzen dituzten 130 liburu-maleta dabilta bidaiatzen. Honez gain, BM kanpainarako Galtzagorri Elkarateak azken urteetan sortutako bi CD-liburuak (Bularretik Mintzora eta Sasi Guztien Gaietik) herri hauetako 2.000 haur baino gehiagoren artean banatu dira. Eta gainera, 2011n zehar Bularretik Mintzora CD-liburua 18.450 jaioberriren gurasoek jasoko dute guztira ospitaletan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren eta Osakidetzaren lankidetzari esker.

Esan bezala, 2011ko irailean Arrasate (21.800 biztanle) eta Audio (18.500 biztanle) sartuko dira kanpainan. Baina Bularretik Mintzorak itxaron zerrenda bat ere badauka. Izan ere kanpainan sartzeko interesa azaldu dute Oiartzun, Arrigorriaga, Amorebieta-Etxano, Getxo, Abadiño eta Zumarragak.

Azken sei herri hauekin aurkezpen bilerak egingo dira hurrengo udazkenean, 2012-2013. ikasturteari begira kanpaina ezartzen hasi ahal izateko. Horrela, ez oso epe luzean, 18 herri izatera heldu daitezke, EAEn oihartzun handia hartzen ari den egitasmo honen baitan.